



GENERO-INDARKERIARI AURRE EGITEKO, GATAZKAK EBAZTEKO ETA HEZKIDETZA LANTZEKO PLANA

1. SARRERA

2. PRINTZIPIOAK

2.1-Indarkeria 0

2.2-Biktimekiko elkartasuna, babesa eta lagunen arteko hezkuntza

2.3-Isiltasunaren legea hautsi

2.4-Ez, ezetz da

2.5-Erakarpen-ereduak

3. HELBURUAK

4. HELDUEN PAPERAK

5. NOLA EGIN ARAUA

6. AUSARTEN KLUBA

7. JARDUERAK

8. METODOLOGIA ETA ANTOLAKETA

9. PRESTAKUNTZA ETA MATERIALAK

Eranskina: [hezkidetza arloko egungo praktiken mapa](#)

1.-SARRERA

Beharrezkoa da haur eta gazte oro eskolan seguru sentitzea, espazio horretan ikas dezaten, libre eta berdintasunean hezi eta sozializatu daitezen. Hori dela eta, gure eskolan gatazkak saihesteko eredu dialogikoa aukeratu dugu.

Horregatik gure ikastetxean hezkidetzeta eta elkarbizitza plan bateratu bat lantzea erabaki dugu. Genero bortizkeriaren prebentzioa eta berdintasuna ikastetxean landuko da eta elkarkidetzeta zein solidaritatea bultzatzen dituzten antolaketak eta metodologiak burutuko dira . Emakumeen ekarpenak agerian jartzeko eta sexismoaz ohartarazteko eduki zehatz batzuk aukeratu ditugu, bereziki eredu dialogikoa burutuko dugu arazoak aurreikusteko.

Nazioarteko ikerkuntza zientifikoak hainbat ebidentzia erakutsi du indarkeriak, jazarpenak eta gatazkek eskolan har dezaketen formaren, hedapenaren eta izan dezaketen jatorriaren inguruan. Halako kasuak saihestu, atzeman eta garaiz esku hartu ahal izateko informazioa eta giltzarriak ere zehaztu ditu. Gatazkak saihesteko eredu dialogikoa ebidentzia zientifikoan oinarritzen da, beraz, eta indarkeria saihesteko emaitzarik onenak eta eraginkorrenak lortzea du helburu.

Gatazkak saihesteko eta ebazteko eredu dialogikoak elkarbizitza hobetu dezake, bai eskola barruan, bai hezkuntza-komunitatean. Desberdintasunei aurre egiten die, elkarrizketa oinarri hartuta. Nahiz eta ikasleek paper berezia izan, komunitatearen baitako kide guztien kontsentsua behar da gatazkak saihestu eta ebatzi ahal izateko.

Denok parte hartuko dugu elkarrizketa bidez, gatazken zergatia eta iturburua aurkitzen lagunduko baitigu. Komunitateak gatazkei aurre egingo die azalerratu aurretik (Flecha eta García, 2007). Hortaz, gatazkei aurre hartzea da giltzarria eta horretarako, lankidetzarako giroa sortuko dugu, parte hartuko dugu, bai eskolako funtzionamendua arautuz, bai gatazkak ebazteko eredu bat aukeratuz; hobeto ulertuko dugu elkar eta zentzu gehiago izango du guztiontzat.

Eredu dialogikoak espazio eta baldintza egokiak eskaintzen ditu, guztiok aukera berbera izan dezagun hitz egiteko eta konponbidea elkarrekin bilatzeko. Ezinbestekoa da kontuan izatea pertsona guztiok, kultura edota hezkuntza maila



edozein izanda ere, esku hartzeko eta iritzia emateko gai garela.

Elkarrizketa ahalbidetzen badugu, adostasunezko konponbide bat topatuko dugu gatazkak saihestu eta ebatzi ahal izateko. Elkarbizitza egokia sortzeko ardura eta gaitasuna ez dago agintari edota bitartekari baten esku, baizik eta ikasle, irakasle eta komunitateko kide guztien esku. Helburua da hezkuntzan hain presente dauden botere-harremanetatik haratago joatea, berdintasunean oinarritutako harremanak sor ditzagun.

Gatazkei aurre egin ahal izateko ezinbestekoa da elkarrizketarako espazioak sortzea: batzarrak, gelako bilerak, batzordeak eta abar. Ikasleek, familiek eta irakasleek elkarrekin eskola kudeatzen badute, arauak sortzen eta gatazkak konpontzen badituzte, elkarbizitzak hobera egingo du eskolan eta komunitatean. (Iturria: Ikas Komunitatea, gatazkak ebazteko eredu dialogikoa).

2.-PRINTZIOAK

Pertsonen arteko elkarriketak, elkarrekintza eta testuinguruak ez dira neutroak. Genero-indarkeriari dagokionez, sozializazio-prozesuak positiboak dira, horien bidez indarkeriari aurre egitea lortzen bada, eta toxikoak, arrisku-faktore bihurtzen badira.

Prozesu negatiboak saiheste aldera, eskolak honako erronka hau dauka: elkarrekintzarako pertsona eta testuingurua ondo aukeratzen ikasi beharko du.

2.1.-Indarkeria zero, zero urtetik hasita

Nazioarteko ikerketen arabera, eskolan indarkeriarik gabeko ikasketa eta harreman libreak txiki-txikitatik sustraitu behar dira, lehen haurtzarotik hasita indarkeria saihestu nahi bada. Bizitzako lehen urteetatik hasita, haurrek indarkeria ez toleratzen ikasiko dute. Eskolak espazio seguru bihurtuko ditugu zenbait estrategiei esker; denok gaitzetsiko dugu indarkeria eta elkarbizitzarako giro egokia sortuko dugu.

Indarkeria zero, zero urtetik hasita esaldiak esan nahi du sozializatzean tratu txarra gaitzetsiko dela eta tratu ona aukeratu. Era berean, sozializatzeko eredu horrek mota guztietako harremanetarako balioko du –lehen haurtzarotik hasita–, baina batez ere, lagunarterako.

Indarkeriari zorroztasunez aurka egingo dio ikas-komunitateak; ez da arinkeriarik onartuko, ezta normalizaziorik ere. Halaber, ume izatea ez da argudio izango. Ez, ezetz da; hots, umeek *ezetz* esaten ikasiko dute eta *ezetza* erantzun gisa onartzen. Indarkeriarik gabeko giroa sortu nahi bada, indarkeria erabiltzen duten pertsonekin jarraibideak adostu beharko dira. «Genero-indarkeriari aurre egiten dion sozializazio-ereduak, harremanetako indarkeria gaitzesteaz gain, gizarteko indarkeria-ereduak identifikatzen ditu, erdeinagarriak direla erakusteko asmoz¹» (Duque, et al. 2016:11).

¹ Itzulpena itzultzailearena da.

2.2.-Biktimekiko elkartasuna, babesa eta lagunen

arteko hezkuntza

Hezkuntza-prozesuen garapenak ezinbestean du zerikusia sentimenduekin, emozioekin eta harreman estuekin, besteak beste, adiskidetasunarekin. Ikerketek erakutsi dute berdinen taldeko elkartasunak nahiz adiskidetasunak neurri batean indarkeria saihestu eta desagerrarazi dezakeela eskolan.

Adiskidetasuna bermatzeko beharrezkoa da elkartasun giroa sortzea; biktimek babesa izango dute eta pertsona orok indarkeriari aurka egingo dio. Ondorioz, edozein bidegabekeria edota indarkeria zantzuren aurrean isiltzen ez dena ausarta izango da.

2.3.-Isiltasunaren legea hautsi

Indarkeriari aurre egiteko eman behar den lehen pausoa gertatu dela ohartzean datza, baina irakasleek ezin dute ikusi eskolan eta eskolaz kanpo gertatzen den guztia. Konfiantzazko giroa sortu behar dugu, biktimek gertatzen zaiena ausardiaz konta dezaten, baita lekuko direnek ere. Bai biktimek bai lekukoek pauso hori eman dezaten, honako baldintza hauek betetzea ezinbestekoa da:

- Indarkeria ez da arinki hartu behar. Haur batek heldu bati laguntza eskatzen badio, entzun eta erantzun egin behar zaio. Baina honako erantzun hauek ez dira egokiak: «Zuen artean moldatu!»; «Beti kexu zara.»; edota «Berrito gertatzen bada, esan.».
- Biktimen babesa sustatu behar da. Maiz lekukoek beldurragatik ez du biktima babesten, ezta esku hartzen ere, egingo balu biktima bihur baitaiteke. Hori dela eta, behar-beharrezkoa da babesa eskaintzen dutenen segurtasuna bermatzea.
- Salatzeak konnotazio negatiboa galdu behar du; izan ere, indarkeria-kasu baten berri ematen duena ez da salataria, ausarta baizik.

Aipatutako baldintzak betetzen badira, lekukoentzat errazagoa izango da indarkeriari uko egitea, salatzeak ausardia izatea eta isiltasuna haustea.

2.4.-Ez, ezetz da

Esku-hartzeen helburua da hurrei erakustea eskubideak dituztela, beren gorputzaren jabe direla, aukera dezaketela nor besarkatu, nor ukitu, nori kontatu sentimendu sakonenak.

Egoera batek deseroso sentiarazten baditu, hurrei ezetz esaten erakutsi behar zaie eta konfiantzazko helduren bati berehala gertatutakoa kontatzen. Hori gerta dadin, hots, haur batek heldu bati egoera deseroso baten berri eman diezaion, deseroso sentitu den adin txikikoa babestu beharko du helduaren erantzunak. Hori horrela izanda, erantzun hauek saihestu behar dira: «Beno, badakizu, “x”-en tontakeriak dira, ez egin kasurik.»; «Ez zen hainbestearainokoa izango.»; «Ez joan jolastokiko leku horretara eta, ikusiko duzu, ez zaitu gehiago zirikatuko.» Tankera horretako erantzunek gertatutakoa alde batera uzten dute, egoera gutxien eta desenkusatzeko dute, edota biktimari aldentzeko eskatzen diote, indarkeriarik jasan ez dezan.

2.5.-Erakarpén-ereduak

Indarkeriari aurre egin ahal izateko ezinbestekoa da berdintasunean oinarritutako harremanak sortzea. Hori lortuz gero, adiskidetasuna handiagotuko da. Botere-erlazioek gatazka asko sortzen dituzte eskolan; izan ere, bai mutilek bai neskek nagusitasun edota otzantasun rola hartzen dituzte eta indarkeriaz jokatzeko dute, genero-indarkeria areagotuz.

Gómezek dio gustua ez dela berezkoa (2008); pertsona batzuekiko erakarpén jaiotzen garenetik sentitzen dugula mito bat da, eta biologian oinarritzen den ikuspegi hori gaingaitu behar dugu. Biologia, kimika eta maitasun itsua halabeharrezkotzat jotzen baditugu, eragotzi beharrean, indarkeria desenkusatu dugu. Sozializazio-prozesuen emaitza da erakarpén eta txiki-txikitik hasten gara gustua lantzen. Hori horrela izanda, maitasuna edota desira ez dira berezko sentimendu aldaezinak, gizarteak eraikiak baizik; haurtzaroan hasten gara sozializatzeko ereduak barnetatzen. Beraz, hausnartzen badugu, nagusitasun nahiz otzantasun roletatik haratago joan gaitzke.

Garrantzitsua da *desiraren hizkuntzaren* bidez berdintasun eta elkartasun balioen arabera jokatzeko duten pertsonenganako erakarpén sustatzea.

Pertsonen sozializazioan giltzarria da hizkuntza, zalantzarik gabe, eta norbanakoen gustuak eta lehentasunak muga ditzake.

Berdintasunik ezan eta indarkerian oinarritutako harremanak gaitzesten dituzten mutilak erakargarri bihurtzen badira, harremanak hobetuko dira. Genero-indarkeriari aurre egin nahi badiogu, berdintasunean eta ontasunean oinarritutako erakarpen-eredu bat geureganatu beharko genuke, bai irakasleek bai neska-mutilek. Beste hitz batzuetan:

“Tratu txarrak bukatu behar baldin badu, ez dugu sentituko tratu txarra ematen duten pertsonetik erakarpenik. Matxistek berdintzaileek edo tratu ona ematen duten pertsonen baino arrakasta handiagoa duten bitartean, beti egongo da tratu txarra ematen duenik²” (Gómez, 2008:11).

Tratu txarrik egon ez dadin, beharrezkoa da ikas komunitatean hausnarketa nahiz elkarrizketa ahalbidetzen duen egitura bat sortzea, baita hainbat estrategia abian jartzea ere, besteak beste, irakasleen prestakuntza, eztabaidarako eta hausnarketarako foroak, bideo-foroak eta abar. Aurrerago metodologia-proposamen gehiago zehaztuko dira.

3.-HELBURUAK

Eskola indarkeriarik gabeko harreman berdintzaileetan oinarritzea da helburua. Hori lortzeko, honako hau egin behar dugu:

-Sozializatzeko modua aldatu behar dugu; «tratu txarra ematen duena baztertu» eta «zaindu ondo tratatzen zaituen hori».

-Ikasleei erremintak eskaini behar dizkiegu, tratu txarra ematen duena bazter dezaten –hots, oldartzen dena bakarrik utz dezaten– eta biktimak babes ditzaten.

-Isiltasunaren legea hautsi behar dugu.

-Indarkeria ez dugu arinki hartu behar.

² Itzulpena itzultzailearena da.

-Adiskidetasuna bultzatu behar dugu.

-Harreman batek indarkeria zantzua badu, gizarteak ematen dion erakarpenari uko egin behar diogu; harreman baketsuak eta berdintzaileak erakargarri bihurtu behar ditugu.

4.-HELDUEN PAPERA

Irakasleek eta gainontzeko hezkuntza-agenteez honako hau ziurtatu behar dute:

- *Indarkeria-kasuen denuntzia oro kontuan hartuko dute.*
- *Biktima batek hitz egiten badu, entzuteaz gain, babesa eta laguntza eskainiko diote.*
- *Elkarrizketarako espazioak sustatuko dituzte, honako galdera hauei erantzun ahal izateko: nola esku hartu beharko litzateke gatazka, jazarpen edota indarkeria-kasu batean?, nola esku hartzen dugu gaur?, zerbait aldatu beharko genuke?*
- *Salatzearen eta gertatutakoaren berri ematearen arteko aldea azalduko dute. Indarkeria-kasu baten berri ematen duena ez da salataria, ausarta baizik.*
- *Esku hartzen duten pertsonen argi eta garbi azalduko diete nola jokatu behar duten, helburua biktimaren alde jartzeari beldurra galtzea baita.*
- *Argi azalduko diete ikasleei nora joan daitezkeen edo norekin hitz egin dezaketen indarkeria-kasuez. Denek ezagutu beharko dute pertsona hori eta beti egongo da gertu.*

Ikasleek honako hau jakin behar dute:

- Neskek eta mutilek eskolan seguru sentitzeko eskubidea dute. Biktima bazara, kontatu norbaiti zer gertatu den.
- Ez galdu adorarik irakasleekin hitz egin ostean ezer aldatu ez bada. Gertatutakoaren berri eman, harik eta esku hartzen den arte.

- Gertatutakoa ez da erasotzailearen eta biktimaren arteko barne-arazo bat.
- Eraso baten lekuko bazara, esku hartu biktima babestuz edota lagundu dezakeen pertsona bati kontaktu. Zure arazoa ez dela pentsatzen baduzu, jar zaitez biktimaren lekuan.
- Konturatzen bazara norbait bakarrik dagoela edota zerbait gertatzen zaiola, interesa erakutsi eta ziurtatu ez dela indarkeria-kasu baten biktima, bazterkeria barne hartuta.
- Indarkeriari ez zaio indarkeriarekin aurre egin behar.

5.-IKAS KOMUNITATEAREN ELKARBIZITZA-ARAU SORTZEKO URRATSAK

Elkarbizitza-araua sortu aurretik, komeni da ikas komunitateko kideek sozializazioari buruzko prestakuntza bat egitea, genero-indarkeriari aurre egitea xede izanik. Bertan komunitate osoak parte hartzea gomendatzen da, hots, irakasleek, ikasleek, familiek, gizarte-agenteeek, eta, batik bat, klaustroko partaideek.

Arauak **sei baldintza** izango ditu:

- Denek gogoratzeko modukoa izango da, ideologia edota adina edozein izanda ere.
- Haurrentzat garrantzitsua den gai bati hertsiki lotua egongo da.
- Gizarteak hitzez babestuko du.
- Askotan apurtzen dena.
- Desagerrarazi daitekeen jokabide bati erantzungo dio.
- Gatazkaren konponketa eredugarria izango da gizartearentzat, familientzat, irakasleentzat nahiz ikasleentzat.

Komunitateak oso-osorik arauaren garapenean parte hartu eta elkarrizketan jardun dezan, honako urrats hauek emango ditugu:

1. Urratsa – Batzorde misto bat sortu eta arau bat proposatuko da komunitate osoarentzat.

- Partaideak

Batzordean honako hauek parte hartuko dute: ikasleek, irakasleek, familiek, eskolako langileek (irakasle ez direnak) eta hezkuntza agenteek (jangelako, kirolekako nahiz denbora libreko begiraleek). Garrantzitsua da eskolako familien aniztasuna batzordean ordezkaturik egotea. Batzordean parte hartzeko, ikasleak beren borondatez aurkeztuko dira; boluntariorik egongo ez balitz, gelako ordezkariak beteko dute funtzio hori.

Gehientzat egokia den ordutegia aukeratu da, partaidetza handia izatea nahi baitugu.

Batzordeko koordinatzaileak Ikaskom taldean parte hartuko du, alegia, genero-indarkeriaren prebentzioa lantzen duen taldean. Gutxienez pertsona batek parte hartuko du, nahiz eta hobe litzatekeen klaustroko beste batzuk ere joatea. Txandak antola daitezke. Era berean, indarkeriari buruzko foruetan parte hartzeko erraztasunak emango zaizkie batzordeko partaideei, ahalik eta gehienek prestakuntzetan parte har dezaten eta beste eskola batzuetako partaideekin eztabaidatzeko aukera izan dezaten.

- Arauaren proposamena

Batzordeak proposamen bat prestatuko du eta eztabaidatu ondoren, ikasleei, familiei eta komunitate guztiari nola aurkeztu zehaztuko du.

Proposamena egin aurretik, batzordeak zenbait ekintza antolatuko ditu, eskolaren erronkak zein diren argitze aldera. Zergatik arduratzen ditu elkarbizitzak familietako eta ikasleetako batzuk?

- Bilerak antolatuko dira gelan, ikasleek gai jakin batzuei buruz hitz egin dezaten. Horietako bat honako hau da: eskolara pozik etor zaitezten, zer da zuretzat garrantzitsua?, eta eskolan beti seguru sentitzeko? Ondoren, ordezkariak gelako bileretan esan denari buruz eztabaidatuko dute.
- Familiek ere beren ekarpena egingo dute: ordura arteko arazo berri emango dute eta seme-alabek zer kontatu dien jakinaraziko dute.

Bestalde, arinkeriaz eta normaltzat hartuagatik ere, zenbait jarrerak eta egoerek indarkeria dakarte. Sakon landuko du batzordeak arazo hori.

- Normaltzat jotzen diren egoerak bereizte aldera, irakasleen hausnarketa bultzatuko da.

Informazio hori guztia bildu eta gero, batzordeak proposamen bat garatuko du. Arau on bat sortzeko giltzak ikasleei protagonismoa ematean datza; halaber, irakasleen bizitzan garrantzia duten gaiekin lotuta egon beharko du arauak.

2. Urratsa – Arauaren proposamena irakasleen klaustroan eta eskola-komunitatearen bileran aurkeztuko da. Partaidetzak ahalik eta handiena izan behar du.

Batzorde mistoko irakasleek arauaren proposamena ezagutuaraziko dute klaustroan. Era berean, familia guztiak gonbidatuko diren bilera batean araua aurkeztuko dute batzorde mistoko ordezkariak.

Eraginkorragoa iruditzen zaigu batzorde mistoak araua proposatzea eta, gero, irakasleei nahiz familiei eztabaida dezatela eskatzea; izan ere, esperientziak erakutsi du proposatzen ditugun arauak irakasleoi ezinegon sortzen digutela. Araua zehazten eta garatzen joango da denborarekin.

3. Urratsa – Batzorde mistoko partaideek araua ezagutaraziko dute ikasgela guztietan.

Batzorde mistoko ordezkariak, beste partaide batzuen laguntzaz, araua ezagutaraziko dute eta gelako irakaslea entzule izango da. Ikasleek arauaren proposamenaren inguruan eztabaidatuko dute; ordezkariak eztabaidako ideiak, emaitzak eta aldaketak bilduko dituzte, araua kaltetu ez dadin.

Komenigarria da batzorde mistoaren koordinatzaileak bilera guztietan parte hartzea.

4. Urratsa – Gelako ordezkariak eztabaidatu egingo dute honako galdera hauei erantzun ahal izateko: nola zehaztu dezakegu araua? batzorde mistoko partaideen laguntzaz, zein da araua martxan jartzeko biderik egokiena?

Batzordean parte hartzen duten pertsona helduek laguntza eskainiko dute bilera honetan, baina ikasleak izango dira protagonista.

5. Urratsa – Bilera bat antolatuko da, non, ikasleen ordezkariak irakasleei, familiei eta komunitateari eztabaidaren emaitzak aurkeztuko dizkieten.

Bilera hori antolatu baino lehen, batzorde mistoa bildu egingo da klaustroan eta gainerako bileretan –ikasleekin, familiekin– atera diren ekarpenak biltzeko. Horiek kontuan izanik, behin betiko araua berridatziko dute.

Hainbat egoera erabil daitezke behin betiko araua komunitateko kideei aurkezteko. Familiei dagokienez, komenigarria da ahalik eta kide gehien bilduko den eguna aukeratzea. Esate baterako, kurtso bukaerako festan, Olentzeroren etorreran, inauterietan, kurtso hasierako bileran, harrera egunetan eta abar.

Ordezkariek ekarpen guztiak bilduko dituzte eta, ondoren, gelan aurkeztuko dituzte ikaskideen, irakaslearen eta batzorde mistoko ordezkari baten aurrean.

6. Urratsa – Komunitate guztia arduratuko da araua martxan jartzeaz eta etengabe berrikusteaz.

Geletako eta batzorde mistoko ordezkariak arauaren jarraipenaren berri emango diete gainerakoei.

Ordezkarien batzarrak antolatuko dira aldiari behin, sortu diren gatazkak lantzeko asmoz. Era berean, gatazkek arauarekin loturarik ote duten aztertuko da, esku-hartzeak landuko dira, baita harremanetan geratzen diren aldaketak ere.

7. Urratsa – Prestakuntzak nahiz autoprestakuntzak eskainiko dira prozesu guztian zehar.

Zientzian oinarritutako tertulien bidez prestakuntza eskainiko da honako gai hauen inguruan: gatazkak konpontzeko eredu dialogikoa, genero-indarkeriari aurre egiteko sozializazio-ereduak, *bullying*, LGTBI+. Komenigarria da prestakuntza honi lehentasuna ematea kurtsoaren plangintzan. Adibidez, tertulia edo bideo-foru saio bat antola daiteke hilean behin.

6. AUSARTEN KLUBA

Gelako ikasle guztiak Ausarten Klubean egongo dira. Ausartak direla diote, eraso baten berri ematen duena ausartzat hartzen dutelako eta ez salataritzat. Gainera, biktima babestuko dute eta indarkeria-jokabideak gaitzetsiko dituzte. Ikasle batek ondo jokatzeko ez badu, berdintzaileen taldeak jarrera hori gaitzetsiko du eta, ondorioz, Ausarten Klubetik atera beharko du. Ikasle guztiak jakinaren gainean egongo dira.

Berdintzaileen taldeak modu aktiboan aurre egingo dio indarkeriari. «Lagunen ezkutua» erabiliko du biktima fisikoki babesteko. Era berean, erasotzaileari aurre egingo dio soilik hitzak erabiliz; argi esango diote berdintzaileen taldeak ez duela halako jarrerarik onartzen eta Ausarten Kluba utzi behar duela aldi baterako. Berdintzaileen taldeak ez du sekula erasotzailea baztertuko, haren jokabidea baizik.

Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleek ikasi behar dute maite duenak ondo tratatuko duela eta taldearentzat pertsona ausartak eta erakargarriak adiskide onak direla. Beraz, *salatariaren* irudia aldatuko da; eraso baten berri emateko adorea duena ausarta izango da. Erasotzailearen jokabidea, aldiz, koldarra da eta ez zaio jaramonik egin behar. Halaber, indarkeria ez da inoiz arrazoi pertsonalekin desenkusatu. Beharrezkoa izanez gero, berdintzaileen taldeak «gortina magikoa» erabiliko du erasotzaileari kasurik ez egiteko jarrera aldatzen duen arte.

Jokabide hori ontzat joko dute haurrek. Irakaslearen papera, ezinbestekoa izanagatik ere, bigarren mailakoa izango da. Giro egokia bermatu beharko du, berdintzaileen taldekoek gatazka euren artean konpon dezaten. Taldeari indarra emango dio eta prozesuan zehar taldekideek zuzen jokatzeko dutela zainduko du.

Ikasle helduagoekin sozializazio prebentiboari buruzko tertuliak egin daitezke. Helburua hainbat galderi buruz hausnartzea izango da, besteak beste: nola babes dezakegu biktima?, zein harreman mota dauzkagu?, nor aukeratzen dugu harremanak edukitzeko?, zein paper jokatzeko du harroputzak ikasgelan?,



zergatik gertatzen dira eraso fisikoak eta berbalak?, zergatik ez du inork ezer kontatzen?, zenbaterainoko indarra du taldeak gatazkak konpontzeko garaian?

7. JARDUERAK

- INDARKERIA 0, ARINKERARIK EZ, AITZAKIARIK EZTA ERE

JARDUERA: EZETZ ESATEN DIOT INDARKERIARI

Hartzaileak	Antolakuntza	Iraupena	Tokia
3 urtetik 10 urtera artekoak	Talde handia	90 minutu 30 minutuko 3 saio	Ikasgela

- **Helburuak**

- Egunerokotasunean gertatzen diren indarkeria-motak landuko dira, batik bat, maiz arinki eta indarkeriarik gabeko jokabidetzat hartzen ditugunak.
- Bai biktimak bai taldeak halako jokabideen aurrean nola erantzuten duten hausnartuko da.

Jardueraren helburua da indarkeria fisikoa, psikologikoa eta sexu-indarkeria bistaratzea. Gerta daiteke ikasleek hiru indarkeria mota horiek ez identifikatzea. Kasu horretan, irakasleak hausnartzen lagunduko die indarkeriak hainbat forma dituela konturatzen diren arte.

- **Iraupena**

30 minutu inguruko hiru saio egingo dira eta honela banatuko ditugu:

- Lehen saioa (30 minutu inguru): jarduera azalduko eta mural edo paper handi bat ipiniko dugu ikasgelako pareta batean. Astea aurrera doan heinean haurrek edota irakasleek murala beteko dute.
- Bigarren saioa (30 minutu inguru): muraleko mezuak irakurriko dituzte eta edukiari buruz hausnartuko dute.

- Hirugarren saioa (40 minutu inguru): bost indarkeria-kasu hautatuko dira. Egoera horietan ezetz esango dutela hitzemango dute denek. Era berean, tratu oneko jarrerarik gustukoena aukeratuko dituzte, guztira bost, eta ikasgelan bistaratuko dira.

- **Baliabideak**

- Giza-baliabideak:

- » Gelako irakasleak jarduera zuzenduko du.

- Materialak:

- » mural handi bat eta bertan idazteko koloretako arkatzak edo errotuladoreak; eta

- » nahi izanez gero, bost kartoi mehe gorri eta bost kartoi mehe berde.

- **Deskribapena**

Eskolan gertatzen diren indarkeria egoerak aztertuko dituzte ikasleek, baita horiei ematen dizkieten erantzunak ere.

- Lehen saioa: ikasleei gaia aurkeztean, tratu onez gain, egunerokotasunean tratu txarrak ere gertatzen direla azalduko zaie. Hori horrela izanda, bi galdera hauen erantzunak zerrendatzea proposatuko zaie: nola tratatua izatea gustatzen zaizu?, eta nola ez? Lehen saioko adibideak gelako muralean idatziko dituzte. Taula honetan zenbait adibide daude:

Gustatzen zait...	Ez zait gustatzen...
lurrera eroritakoan norbaitek zutitzen laguntzea;	niri buruzko gezurrak besteen ahotan entzutea;
gelara sartzean ikaskideek egun onak ematea;	lurrera eroritakoan besteek barre egitea;
nire urtebetetze egunean zoriondua izatea;	beste norbaitek baimenik gabe nire gauzak hartzea;
norbaiti laguntzen diodanean esker ona jasotzea.	nitaz trufatzea eta iseka horren harira barre egitea.

Ikasleek astean zehar egoera gehiago gehituko dituzte muralean edo irakasleari kontatuko dizkie hark idatz ditzan. Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako

lehen mailetakoeak, nahi izanez gero, marrazkiak erabil ditzakete egoerak deskribatzeko.

- Bigarren saioa: hasi aurretik, jardueraren ardura duen pertsona helduak zerrendako egoera guztiak sistematizatuko ditu. Errepikapenak saihestuko ditu, gai nagusiak bistan egon daitezen; izan ere, ikasleak gehien arduratzen dituzten gatazkak bistaratzea da helburua.

Bigarren saioan zehar muraleko hainbat egoera azalduko dira eta hausnarketa bultzatuko da. Zer egiten dut nik «x» egoeran? Zerrendako egoerak txertatuko dira galderan. Zer egiten dute gehienek «y» gertatzen denean?

Honako hiru aukera hauek azaleratuko dira:

- » 1. aukera: egoera baztertzen dut, entzungor egiten diot, ez dut ezer esaten.
- » 2. aukera: indarkeria erabiltzen dut, txalo eginez, barre eginez, iraina edo gezurra errepikatuz.
- » 3. aukera: ezetz esaten diot indarkeriari eta biktimari laguntzen diot.
 - a. Pertsona hori zirikatzeari uzteko eskatzen diot erasotzaileari.
 - b. Biktimaren ondoan jartzen naiz eta nirekin jolastu nahi ote duen galdetzen diot.
 - c. Helduren bati kontatzen diot esku har dezan.

Hausnarketa honek gustatzen ez zaizkigun egoerez jabetzeko balioko du. Asmoa da gustatzen ez zaiguna ez onartzea, besteei ez egitea, ezta beste norbaiti gertatzen uztea ere. Honako mezu hauei indarra emango diegu «ez dut «x» onartzen» edo «ez dizut «y» egiten utziko», harik eta indarkeria mota oro errefusa dadin, bai norberak bizi duena, bai beste batzuek bizi dutena.

- Hirugarren saioa: honaino egindako lana eta hausnarketak oinarri hartuta, gelan gertatu diren bost indarkeria-kasu hautatuko dira. Ikasleek hitzemango dute indarkeriari ezetz esango diotela. Halaber, gehien gustatzen zaizkien bost tratu egoki aukeratuko dituzte. Gomendagarria da emaitza guztiak gelan bistaratzea; horretarako, bost kartoi mehe gorritan indarkeria-egoerak azaldu ditzakete eta bost kartoi mehe berdetan, aldiz, tratu egokiak. Beste aukera bat poster bat



egitean datza eta bertan bildutako informazioa eskolako boletinean argitaratzean, adibidez.

- **Oharrak**

Hirugarren saioan irakaslearen arabera alda daiteke ikasleek aukeratuko duten egoeren kopurua.

Gogoan izan hurrek batzuetan ez dutela besteen aurrean onartu nahi izaten nola jokatu duten, batez ere, indarkeria erabili badute. Erantzunak ahalik eta egiatienak izan daitezzen, garrantzitsua da irakasleak taldea ondo ezagutzea, baita ikasleen arteko harremanak ere. Horretaz gain, erantzunak modu inbertsonalean adieraz daitezke; hots, ikasleek ez dute azalduko nola jokatu duten, baizik eta nola jokatzen duen jendeak orokorrean aukeratu dituzten egoeretan.

Jarduera hau ikasle helduagoekin ere burutu daiteke. Kasu horretan, beharrezkoa izango da hizkuntza egokitzea eta, batez ere, adibideak. Hori izango da saioa ikasleen errealitatera egokitzeko bidea.

JARDUERA: ZEIN INDARKERIA-MOTA EZAGUTZEN DITUGU? ZER EGIN DEZAKEGU?

Hartzaileak	Antolakuntza	Iraupena	Tokia
12 urtetik 18 urtera artekoak	4-6 pertsona	2 ordu (saiotan banatuak)	Ikasgela

• Helburuak

- Indarkeria fisikoa, psikologikoa eta sexuala zein modutan gauzatzen den aztertuko da.
- Indarkeria noiz gertatzen den identifikatzen ikasiko dute partaideek.
- Indarkeriarik ez onartzea da xedea, mota edozein izanda ere.

• Iraupena

Bi orduko jarduera hau honela banatuko da:

- Lehen zatia: jarduera aurkeztuko da hamar minututan.
- Bigarren zatia: bakarka irakurriko dute bost minutuz.
- Hirugarren zatia: kasuak eta egoerak taldeka aztertzeko 40 minutu izango dituzte.
- Laugarren zatia: taldeek ordu bete izango dute informazioa aurkezteko eta eztabaidatzeko. Jarduera egun berean –bi ordu jarraian– egin ezin bada, ordu beteko bi saiotan banatu daiteke. Kasu horretan, lehen hiru zatiak aurreneko saioan burutuko dira eta laugarren zatia, aldiz, bigarren saioan.

• Antolakuntza

- Hainbat kasu eta egoera bakarka irakurriko dituzte.
- Taldekako lana: 4tik 6 pertsona bitarteko talde heterogeneoek egoerak aztertuko dituzte.
- Egoerak aurkeztu eta eztabaidatu egingo dituzte.

• Baliabideak

- Giza-baliabideak:
 - » Gelako irakasleak jarduera zuzenduko du.

- Materialak:
 - » ordenadore bat bi pertsonako;
 - » aurkezpenerako programak (PowerPoint, Prezi eta abar); eta
 - » proiektorea eta ikasgelako ordenagailua.

- **Deskribapena**

- Lehen zatia: Jardueraren aurkezpena:

Jarduera zuzenduko duen irakasleak indarkeria-formei buruzko aurkezpen bat egingo du. Horretaz gain, *indarkeria 0* lemak zer esan nahi duen azalduko du. Jarduera nola egin azaldu ostean, indarkeria-kasuen aurkezpenei ekingo diete ikasleek. Amaieran, kasu horietarako zenbait proposamen bildu ditzakete. Irakasleak adibide horiek erabil ditzake edota ikasleen egunerokoarekin zerikusia izan dezaketen beste batzuk; beharbada zerbait ikusi du eskolako eremuren batean, dela ikasgelan, dela liburutegian, jolastokian, sarrera-irteeretan, gimnasioan, eta abar. Jazarpen, irain eta marjinazio-kasuek biktimaren honako ezaugarri hauekin zerikusia izan dezake: arraza, jatorria, orientazio sexuala edota ezintasun fisiko edo mental bat. Ikasleek adibideak bildu beharko dituzte eta halako egoera baten aurrean ikaskideek, pertsona helduek eta ingurukoek nola jokatu beharko luketen eztabaidatuko dute. Indarkeriak hainbat forma izan ditzakeela azpimarratuko du irakasleak. Adibide horien bidez zero indarkeriaren ideia landuko da, argi gera dadin –mota edozein izanda ere– sekula ezin dela indarkeria arrazoitu edota onartu, ezta arinki hartu ere.

- Bigarren zatia: Bakarkako lana:

Indarkeria-motak aztertuko dituzte ikasleek eta garrantzitsuak iruditzen zaizkien kontzeptuak eta esaldiak azpimarratuko dituzte. Kasu bakoitzean zein indarkeria-mota gertatzen den zehaztuko dute.

- Hirugarren zatia. Taldekako lana:

- » Azpimarratu dituzten esaldi eta kontzeptuak besteenekin alderatuko dituzte eta zergatik aukeratu dituzten azaldu beharko dute.

- » Zein indarkeria-mota gertatu den zehaztu eta gero, jokabide horiek aldatzeko proposamenak bilduko dituzte.

- Laugarren zatia. Aurkezpena, eztabaida eta ondorioak:

Talde bakoitzak bozeramaile bat aukeratuko du, honako hau aurkez dezan:

» hautemandako indarkeria-motak; eta

» taldean eztabaida sortu duen gairen bat edota galderaren bat. Esate baterako, egoeraren batean argi ez balego indarkeriarik gertatu den ala ez. Eskolan maiz ikusi duten egoeraren bat ere izan daiteke, alegia, taldeak garrantzitsutzat jotzen duen edozer.

Idea nagusiak idatziz jasoko ditu taldeak, bozeramaileak gidoi bat izan dezan.

Aurkezpenak bukatzen direnean, eztabaidari ekingo diote ikasleek talde handian. Denen artean proposamenak adostuko dituzte, indarkeria bukatu eta saihestu dadin.

Ikasle batek moderatuko du eztabaida eta hitz egiteko txandak zehaztuko ditu. Beste ikasle batek ikaskideen proposamenak jasoko ditu; izan ere, beharbada egokiak dira etorkizuneko proiektuetarako.

KASUEN PROPOSAMENAK

• 1. Kasua: Maria eta Pedro

Mariak 14 urte dauzka eta Pedrok 16. Urtebete daramate elkarrekin ateratzen. Lotura bat dago bien artean eta asko maite dute elkar, baina azkenaldian edozein txikikeriagatik ika-mikan dabilta. Pedroren aldartea txartu egin da, mamuak eta mehatxuak besterik ez dauzka buruan, eta edozer gauzogatik liskarrean hasten da. Ostiral arratsaldeetan eta asteburuetan liskar handiagoak izaten dituzte, batean Mariak Pedrori behar beste denbora eskaintzen ez diolako, bestean Mariak Pedroren lagunekin hitz egin duelako. Azken bolada honetan liskarrak hainbestearaino larriagotu dira, non, Pedrok ez baitu neurtzen zer esaten duen; Mariari garrasi egin dio, eta ikasgelaz aldatzean, baita bultza ere. Beroaldia pasatzen zaionean, damutu egiten da Pedro eta, Mariari barkamena eskatu ondoren, berriro gertatuko ez dela esaten dio. Baina, beranduago, berriro ateratzen bere onetik. Lagun batzuek Pedro pertsona «zaila» dela esan diote Mariari; beste batzuek aitortu diote, Mariak Pedro utzi bezain pronto, beste

neskaren bat joango dela Pedrorengana. Mariak ez daki zer egin, baina egoera honetan deseroso sentitzen da.

• **2. Kasua: Clara eta Raquel**

Clarak eta Raquelek 16 urte dauzkate eta aspalditik ezagutzen dute elkar. Aurtengo ikasturtean gela berean daude, Clarak eskolaz aldatu baitu. Laguntasuna berreskuratu eta harreman berri bat sortu dute. Raquel zer egin ez dakiela sentitzen da, izan ere, Clara asko gustatzen zaio, baina batzuetan Clararen jarrerak eta jokabideek zur eta lur uzten dute. Clarak Raquelen arropari buruzko iruzkinak egiten ditu, Raqueli esaten dio norekin hitz egin behar duen, eta noiz edo noiz, zenbait arropa jartzea debekatu dio. Halakoetan oso gaizki sentitzen da Raquel eta Clararekin haserretzen da. Clarak dio Raquel sentikorregia dela eta ematen dizkion aholkuak ondo hartu beharko lituzkela, asko maite baitu.

• **3. Kasua: Julia eta Josu**

Juliak 15 urte ditu eta Josuk 18. Bikote dira eta sei hilabete daramatzate elkarrekin. Juliak ez du sekula sexu-harremanik izan inorekin eta iruditzen zaio oraindik ez dagoela pauso garrantzitsu hori emateko prest. Josuk, aldiz, neska-lagun bat baino gehiago izan du eta horietako batzuekin sexu-harremanak izan ditu. Josuk Juliarekin gehiago sentitu nahi duenez, presioa egiten hasi da sexu-harremanak izan ditzaten. Juliak Josu gustuko du, iruditzen zaiolako mutil ona dela eta maite duela. Dena den, ez da seguru sentitzen eta presioak ziurtasunik gabe sentiarazten du. Josuk dio sexua behar duela. Hainbeste tematu delako ultimatum bat eman dio Juliari: «Ez baduzu erabakirik hartzen, utzi egingo zaitut.».

• **4. Kasua: Xabier eta Alex**

Xabier 16 urteko gazte da. Barnerakoia da eta inoiz ez da inorekin atera. Ikastuna da eta biolontxelo josten eta ingelesa ikasten igarotzen ditu arratsaldeak. Alexek 17 urte ditu eta Bigarren Hezkuntzako laugarren maila errepikatu du, arreta gehiago eskaini diolako orientazio sexualari ikasketei baino. Ingurukoek homosexuala dela dakitenetik, harremanak izan ditu mutil batzuekin. Batzuetan irainak eta indarkeria psikologikoa jasan ditu. Ikaskide batek

antolatutako festan, Alexek Xabierrekin topo egin du eta muxu eman dio ahoan. Xabierrek ez du erantzuteko denborarik izan. Gero, Alexek jarraitzeko eskatu dio, baina Xabierrek ez du nahi. Alexek Xabier presionatu du eta azkenean, elkarrekin igaro dute gaua amodio-kontuetan. Festaren ondorengo egunetan nahastuta sentitu da Xabier, eta Alex ikusten duen bakoitzean urduri sentitzen da eta kikilduta geratzen da.

• 5. Kasua: Francina eta Bittor

Francina eta Bittor Goi Mailako Ziklo bat ikasten ari dira. Lehen hiruhilekoan taldean giro ona izan dutenez, eskolaz kanpo elkartzea erabaki dute ikaskideek. Afaltzera joan dira eta gero dantzatzera. Bittor Francinaren atzetik dabil denbora guztian, baina inor ez da ohartu Bittorren jarreraz. Bat batean Bittorrek Francinari heldu dio eta haren gorputza ukitzen hasi da, bularrak, izterrak... Francinak argi eta garbi esan dio utz dezala, ez dezala gehiago ukitu. Bittorrek, ordea, Francinari segika jarraitzen du, nahiz eta lagun batek esan dion jarrera horrekin ez duela ezer lortuko. Ikaskide batzuk barre artean esan diote elkarri Bittor Francinarekin txora-txora eginda dagoela eta gaur gauean dena emango duela. Azkenean, Francina larrituta joan da lokaletik eta ez daki zer egin zikloarekin.

• 6. Kasua: Malen eta Gabriel

Malen Batxilergoan dago. Ez da taldeko beste neska batzuk bezain ezaguna, baina denekin harreman ona edukitzen saiatzen da. Jolas garaian mahaitenisean edota saskibaloian jolastera joaten saiatzen da mutilekin. Gaur zur eta lur utzi ditu gelako ikaskide guztiak; izan ere, kontatu die aldaketa prozesu batean dagoela eta handik gutxira Gabriel izatera pasatuko dela. Pauso ausart horrek zirrara eragiten dio, baina baita beldurra ere. Gelatik atera direnean, neska batzuk errezeloz begiratu diote, mutil batzuk ezer esan gabe pasa dira Malenen ondotik. Markel eta Olatz Malenengana joan dira. Ez diote ezer komentatu esan duenari buruz, baina 21era jolastu nahi ote duen galdetu diote. Malenek eskerrak eman dizkie; alabaina, saskibaloian jolastu beharrean nahiago duela hitz egin esan die. Markeli eta Olatzi primeran iruditu zaie, jakin-min handia baitute. Malen nola sentitzen den eta etorkizunean zer geratuko den jakin nahi dute.

• 7. Kasua: Clara

Clarak 14 urte ditu. Badira bi urte Japoniako kulturarekiko interesa piztu zitzaiola. Musika japoniarra gustatzen zaio eta manga komikiak irakurtzen ditu. Hori dela eta, pasa den ikasturteaz geroztik ikaskide batzuk Clara iraintzen dute. Ordura arteko lagun batzuk esaten diote arraroa dela, bestelako arropa erabiltzeagatik adarra jotzen diote, baita ez makillatzeagatik ere. Clara oso bakarrik sentitzen da eta egoera jasangaitz bihurtzen ari da. Eskolara joan behar duen bakoitzean tripako mina jartzen zaio, eta dagoeneko, behin baino gehiagotan joan da medikuarenera. Nota txarragoak atera ditu eta agian kurtsoa errepikatu beharko du. Clarari aukera hori ez zaio txarra iruditzen, izan ere, agian ez dute gehiago irainduko eta lagun berriak egiteko aukera izango du. Ez du ulertzen ikaskideek zergatik ez dituzten bestelako gustuak errespetatzen, eta hare gutxiago, zergatik ez duen inork Clara defenditzen.

• 8. Kasua: Omar

Omar Nigerian jaio zen. Bi urte daramatza Euskal Herrian eta oso ondo hitz egiten du euskaraz. Futbolean oso ondo jolasten du eta horri esker nahiko ezaguna da eskolan. Aurtengo kurtsoan ikasle berri bat dago taldean. Lider bihurtu da eta Omarri «Betun» ezizena jarri dio azalaren kolore ilunagatik. Geroztik Omarrek ez du hain ondo pasatzen jolasgaraian futbolean jolasten dutenean. Azkenaldian ohartxoak aurkitu ditu motxilan bere azaleko koloreari buruzko burlekin. Hori gutxi balitz, gaur motxila beltzez pintatu diote erabat. Etxera iritsi denean amari esan dio ez duela gehiago eskolara joan nahi.

- **BIKTIMEKIKO BABESA ETA ELKARTASUNA**

JARDUERA: **LAGUNEK TRATATZEN NAUTE ONDO**

Hartzaileak	Antolakuntza	Iraupena	Tokia
3 urtetik 10 urtera artekoak	Bilera batean elkarrizketa sortuko da ipuin honen harira: Arianna Papini, «Ser amigos».	40 minutuko hiru saio	Ikasgelan edo ziklo bereko beste gela batean

- **Helburuak**

- Laguntasunaren ezaugarriak aztertuko dira.
- Laguntasunak indarkeria baztertzen duela agerian utziko da.
- Lagun egokiak aukeratzeko irizpideak bilduko dira.

- **Iraupena**

40 minutu inguruko hiru saio.

- **Baliabideak**

- Giza-baliabideak:

» Jarduera zuzenduko duen irakasleak ipuina irakurriko die ikasleei eta elkarrizketa moderatuko du.

- Materialak:

» Arianna Papini, «Ser amigos», Kalandraka. Jarduera hau ipuin hori gabe ere egin daiteke (ikusitako oharren atala); orri txuriak, margoak, koadernaketa.

- **Deskribapena**

- Lehen saioa: «Ser amigos» ipuina kontatu ostean, elkarrizketarako denbora izango dute ikasleek eta tankera honetako galderei erantzungo diete: zer da laguntasuna?, zer egiten dute benetako lagunak? Orri txuri batean jasoko dira lagun izateko bete behar diren ezaugarriak eta jokabideak.

- Bigarren saioa: lagun izateari buruzko liburu bat egingo dute. Orri batean idatziko dute «Laguna izatea da...». Jarraian, ikasleek esaldiak idatziko dituzte lehen saioko ezaugarriak kontuan hartuta eta ondoan marrazki bat koloreztatuko dute, «Ser amigos» liburuaren formatua oinarri hartuta.

- Hirugarren saioa: Aurreko saioan ikasleek egin zuten liburua koadernatuko du irakasleak eta orrialde txuri batzuk gehituko dizkio. Liburu hori oinarri hartuta, irakasleak beste talde batean azalduko du «Lagun izatea» zer den eta gai berari buruz eztabaidatuko dute. Irakaslearen taldekoek aipatu ez duten ezaugarriren bat aterako balitz, liburuan gehituko du.

«Zaindu maite duzun hori.»

Bi taldeen ideiekin osatutako liburua gelako liburutegian egongo da eta mailegatu egin daiteke eskolaz kanpo irakurri nahi izanez gero.

- **Oharrak**

Jarduera hau «Ser amigos» ipuinik gabe ere burutu daiteke. Kasu horretan, laguntasunaren esanahiari buruzko ideiak bilduko ditu irakasleak lehen saioan. Beste erreminta batzuk ere erabil ditzake, besteak beste, laguntasunari buruzko kantuek, marrazki bizidunen serieetako atal bat. Esate baterako: Toy Story filmaren soinu-bandako «Hay un amigo en mi» kanta edota «You're not alone» atala.

JARDUERA: TRANSEXUALITATEA, NORUNTZ?, NORENGANA?

Hartzaileak	Antolakuntza	Iraupena	Tokia
14 urtetik 18 urtera artekoak	Talde handia	Gutxienez 90 minutu	Ikasgela

- **Helburuak**

- Genero-identitateak identifikatuko dituzte.
- Orientazio sexualak identifikatuko dituzte.
- Genero eta orientazio sexualen errespetua sustatuko da.
- Indarkeriaren biktimak babesteko eta elkartasuna adierazteko sareak sustatuko dira.

- **Antolakuntza**

Talde handia

- **Iraupena**

Saio bat edo gehiago egin daitezke, ordutegiaren baitan eta taldeak egingo duen eztabaidaren aberastasunaren baitan. Saioek luzera ezberdina izan dezakete. Jarduera burutzeko gutxienez 90 minutu beharko dira.

- **Baliabideak**

- Giza-baliabideak:

» Gelako irakasleak jarduera zuzenduko du.

- Materialak:

» Arbel bat eta tiza edo errotulagailuak; ikus-entzunezkoak proiektatzeko ekipoa, hots, proiektore bat eta bozgorailuak.

- **Deskribapena**

Jarduera zuzenduko duen pertsonak genero-identitatearen gaia aurkeztuko du eta ikasleei galdetuko die zer esan nahi duen. Galdera hori eztabaida labur baten abiapuntua izango da, eta helburua genero-identitatea eta orientazio sexuala bereiztea izango da.

Eztabaida bukatzen denean, transfobiak eragindako *bullying* edo jazarpen kasu erreal bat aurkeztuko da, Alan gaztearenena, hain zuzen. 2015eko abenduaren 24an bere buruaz beste egin zuen eskolan jasan zituen jazarpenek bultzatuta. Alanen kasua landuko da eta ikasleek dokumental bat ikusiko dute, kasuaren inguruko informazio gehiago izan dezaten. 2014an «El sexo sentido» dokumentala argitaratu zen RTVEen. Alanen kasua aurkeztu eta dokumentala ikusi ostean, taldeak eztabaidari ekingo dio. Zenbait galderek eztabaida mugatuko dute. Hasi aurretik izenik ez aipatzeko eskatuko zaie ikasleei, egoerak azaltzeko baizik:

- Alanen kasuaren antzekorik ezagutzen duzue? Antzeko kasuak azalduko dituzte xehetasunak emanaz.
- Nolakoa zen Alanen eta ikaskideen arteko harremana?
- Antzeko kasurik ezagutzen baduzue, norbaitek biktima defendatu al du? Nola?
- Zer egin behar luke eskolak halako egoeretan? Zer deritzozue dokumentalean agertzen diren eskolek –Alanen eskolak– ematen duten erantzunari?

- **Oharrak**

Gomendagarria da adingabe transexualen familien elkarteari lotura duen norbaitek jarduera dinamizatzea.

Aipatutako dokumentala ezin bada ikusi, jarraian azalduko den kasua landu edota ikasleei informazio gehiago bilatzeko eskatu daiteke.

- **Kasua: transexual izateagatik *bullying* adingabe bati**

Biktima: mutil transexual bat, adingabea, hezkuntza, *bullying* kasu argia.

Jarduera honetan Alanen kasua aztertuko da dokumental baten bitartez. Dokumentala ikusteko behar den materiala eduki ezean, jarduera honen amaieran dauden kasuak erabil daitezke.

2015eko abenduaren 24an, Rubí udalerrian gazte batek bere buruaz beste egin zuen. Arartekoak segituan agindu zuen kasua ikertu behar zela. Kataluniako Observatori contra l'Homofòbia elkartekoek eskolako zuzendaria elkarrizketatu eta informe bat osatu zuten. Biktimaren amak Kataluniako parlamentuko komisio batean parte hartu du. Semea hainbat eskolatan egon zen: lehenengo Rubí

udalerriko institutu batean, non, jazarpenak jasan zituen; gero, Sant Cugat del Vallès udalerriko institutu batean. Han ere jazarpen-kasuen biktima izan zen; hirugarrenez aldatu zuen eskolaz, ostera Rubín, baina beste institutu batean. Bertan ere LGBTI-fobiak eragindako jazarpenak jasan zituen. Azken institutuan zegoen denboran egin zuen bere buruaz beste. Alanen kasua Adingabeen Fiskaltzan dago erregistratua. Polizia ikertzen ari da. Gorroto-delituen eta Bereizkeriaren Fiskaltza eta Kataluniako Generalitatea egoeraren jakitun dira. Gaur arte –2018– martxan jarraitzen du ikerketak.

» **Analisia:**

Mutil transexual adingabe bat hiru institututan egon zen bizitzako azken urteetan. Dirudenez, hiruretan jasan zituen LGTBI-fobiak eragindako jazarpenak. Hirugarren institutuan zegoenean egin zuen bere buruaz beste, Eguberri egun bezpera batean. Eskolak ikerketa bat abiarazi zuen biktimaren amak eskatuta; amak eskatu izan ez balu, agian zentroak ez luke egingo. Ikerketaren arabera, eskolan tratu ona jaso zuen uneoro, genero-identitatearen araberrako izenez deitzen zioten, adibidez. Bizitzako azken hilabeteetan, NAN txarteleko izena alda zezaten lortu zuen gazteak. Hala ere, bizitzako beste alor batzuetan familiaren eta eskolako kontrolpetik kanpo zegoen, esate baterako, sare sozialetan. Alor horretan babesgabetasuna maiz arazotsua izan daiteke. LGTBI-fobiak eragindako jazarpenetan biktima aldatzen da eskolaz. Hortaz, biktimak bizimodua aldatu behar du jazarpen-egoerei aurre egin ahal izateko. Hori guztia dela eta, garrantzitsua da eskoletan LGTBI adingabeak babesteko mekanismoak eratzea.

ISILTASUNAREN LEGEA HAUTSI

JARDUERA: ISILTASUNAREN LEGEA HAUTSI ETA LEHEN HEZKUNTZAKO IKASGELAN ELKARTASUN-SAREAK SORTU

Hartzaileak	Antolakuntza	Iraupena	Tokia
6 urtetik 8 urtera artekoak	Talde handia	Kurtso guztian zehar	Ikasgela, jolastokia, jangela, eskola, parkea eta abar.

- **Helburuak**

- Bidegabekeriak identifikatzea eta salatzea errazagoa izatea nahi dugu.
- Ikasleek biktimaren alde egiteko ausardia izatea bultzatuko da.
- Estrategiak landuko dira, ikasle batzuen jokabide koldarrak –alegia, isekak, eraso fisikoak edota berbalak, jazarpenak, norberaren nahia inposatzea, etab.– saihesteko asmoz.

- **Antolakuntza**

Hasteko, isiltasuna haustearen garrantziaz hitz egingo da, izan ere, elkar defendatzen, laguntzen eta babesten dugun talde bat gara.

Nahiz eta indarkeria-kasu bat edozein unetan eman daitekeen, ikasleek egunero denbora hartuko dute jolas-garaitik gelara itzultzen direnean egoera desatseginen, erasoen, iseka eta irainen berri emateko,.

Iraupena

Kurtso guztian zehar landuko da jarduera hau. 30 minutuko saioak egin daitezke; bilera batzuen gaien zerrendan ere gehitu daiteke jarduera hau.

- **Baliabideak**

- Materialak:
 - » kartoi mehea eta
 - » plastifikatzailea
- Giza-baliabideak:
 - » Gelako irakasleak jarduera zuzenduko du eta bilerak moderatuko ditu.

- **Deskribapena**

- Lehen saioa: jarduera aurkeztuko da, helburuak eta gai nagusiak zeintzuk diren argi utziz.
- Bigarren saioa: gaiak zein diren azaldu ostean, taldearen identitatea landu dezakete ikasleek; esaldi edo izenlagun baten bidez egin diezaiokete taldeari erreferentzia, adibidez, Primerako Taldea. Halaber, kartel bat egin dezakete denen artean ikasgelako atean jartzeko. Bertan, irudiak eta esaldiak jar ditzakete, esaterako, «Gela honetako ikasleok talde bat osatzen dugu, elkar ondo zaintzen dugu eta elkarri laguntzen diogu.».

PRIMERAKO TALDEA		
*ausartak izan	*bidegabekerien berri eman	*elkar babestu
*elkarri lagundu	*lagun ona izan	*ondo tratatu

- Hirugarren saioa: isiltasuna hausteko moduez hausnartzeaz gain, biktimak babesteko eta biktimei elkartasuna adierazteko sareak nola eratu pentsatu beharko dute. Horretarako, Primerako Taldeko eta Ausarten Klubeko taldekide izateko zein ezaugarri bete behar diren idatziko dute ikasleek kartoi-mehean.
- Laugarren saioa eta ondorengo saioak: onena saio hauek ikasleak jolas-garaitik gelara itzultzen direnean egitea da. Minutu batzuetako bilera egingo dute, gatazkaren bat egongo balitz, konpondu ahal izateko. Hirugarren saioan kartoi-mehean idatzi zituzten baldintzekin bat ez datozen egoerei buruz hitz egingo dute; gertatu diren bidegabekerien berri emango dute, tratu txarren berri, norbaitek laguntza behar eta bakarturik sentitu den egoeren berri, eta abar.

Oharrak

Batzuetan beharrezkoa da bigarren saioan edota ondorengo saioetan zehar argitzea zer den taldearentzat elkar ondo tratatzea, zeintzuk diren egoera bidegabeak, zein ezaugarri dituen laguntasunak eta abar. Garrantzitsua da taldekide guztiek kartoi-meheko gaietako dagokien erreferentzia-marko bat izatea. Horrek bileretako eztabaidak erraztuko ditu. Erreferentzia-markoa argitu ezean, gerta daiteke bilera batean taldekide batzuk egoera bat tratu txartzat jotzea eta beste batzuk ontzat.



Nahi izanez gero, bilera bat bukatzean aipatu daiteke zein ikaslek betetzen dituzten kartoi-meheko baldintzak. Pertsona horiek Primerako Taldean egongo dira. Aukera bat da ikasle horien argazkiak kartoi-mehean itsastea, betiere, bileretako iritziak errespetatuz. Hori horrela izanda, egun batean ikasle batek tratu txarrak ematen baditu, egun horretan kartoi-mehean ez da haren argazkirik egongo; baina hurrengo bileran taldeak irizten badu, ikasle horren tratu txarrik ez dela atzeman, Primerako Taldean sartuko da ostera.

Jarduera honen bitartez, Primerako Taldean ez dauden ikasleek protagonismoa galduko dute eta ez dira ausartak izango; baldintzak betetzen dituzten taldekideak, aldiz, protagonista izango dira.

JARDUERA: AUSARTEN KLUBA

Hartzaileak	Antolakuntza	Iraupena	Tokia
6 urtetik 8 urtera artekoak	Bilera	Ostiralak	Ikasgela, jolastokia, jangela, parkea, eta abar.

- **Helburuak**

- Jarrera ausarta bultzatuko da, ikasleek indarkeria-egoeren berri eman dezaten.
- Jarrera ausarta sustatzen duten estrategiei buruz hausnartuko da.
- Biktimen alde egitea eta biktimak babestea bultzatuko da.
- Indarkeria-egoerarik onartzen ez duen jarrera sustatuko da.
- Pertsona batzuek indarkeria erabiltzen dute. Jarrera hori ekidin dezaketenez estrategien inguruan gogoeta egingo da.

- **Antolakuntza**

Kurtsoaren hasieran honako hauei buruz hitz egingo dugu bileran:

- Gustatzen ez zaizkigun jarrerei buruz hitz egingo dugu; gelan, jolastokian, jangelan edo beste edonon jarrera batek gaizki sentiarazi bagaitu, kontatu egingo dugu. Esate baterako, gaizki sentiarazten nau ilaran zain nagoenean norbaitek bultzatzen banau, beste herrialde batekoa naizelako barre egiten didatenean edota irakurtzea kostatzen zaidalako iseka egiten didatenean.
- Zer egin dezakegu halako egoeren aurrean? Galderari erantzuten saiatu ostean, Begoña Ibarrolaren «Ausarten kluba» ipuina irakurriko da.
- Ausarta izateak zer esan nahi duen argituko da. Isiltasuna hausten dutenak ausartak dira, eta ez salatariak. Ideia hori bultzatuko da. *Salatari* izenlagunaren esanahia ahultzeari garrantzia emango zaio.
- Ikasgelan Ausarten Klub bat sortzea proposatuko zaie ikasleei eta hasieran denak izango dira klubeko kide.

Egunero-egunero, elkarrizketarako denbora izango dute ikasleek bazkal-garaian ezer gertatu bada –dela jolastokian, dela jangelan–kontatu dezaten.

- **Iraupena**

Ordubete inguruko lau hasierako saio egingo dira. Horiek bukatzean, asteroko bileretako gaien zerrendan landuko da gai hau kurtsoan zehar.

- **Baliabideak**

- Giza-baliabideak:

- » Gelako irakasleak jarduera zuzenduko du.

- Materialak:

- » Begoña Ibarrola, «Ausarten kluba», Elkar, 2012. Power Point gisa bistaratu nahi izanez gero, arbela digital edo proiektore bat beharko da.

- » Arianna Papini, «Ser amigo», Kalandraka. Ipuin hori laguntasunari buruz hitz egiten hasteko erabil daiteke.

- Bulegoko materiala:

- » kartoi-mehe handiak, klubeko kide guztien argazkiak kabitzeko modukoak;

- » ikasleen argazkiak;

- » superheroien argazkiak;

- » ipuineko pertsonaien –bai ausartaren, bai txepelaren– irudiak koloretan;

- » bileretan landu ditugun jarrerak islatzen dituzten argazkiak, koloretan inprimatuak; eta

- » plastifikatzailea.

- **Deskribapena**

Ausarten Kluba astero elkarrizketa bultzatuko duen espazio bat da; horri esker ikasleek gainerakoekin dituzten jokabideen, iritzien, harreman moten inguruan hausnartuko dute. Jarduera honen helburuak elkar zaintzen duten pertsonak erreferente eta erakargarri bihurtzean datza.

AUSARTOK EZKUTUA EGITEN DUGU	LAGUNEK ONDO TRATATZEN NAUTE	AUSARTA IZATEA ITZELA DA
GUSTATZEN EZ Z Aidanenez, ez dizut utziKO	LAGUNTZA ESKATUKO DUGU	LAGUNEK GELAN LAGUNTZEN DIDATE

Kurtsoaren hasieran, zenbait irizpide adostuko dira, zientzialarien komunitateak indarkeriari aurre egiteko beharrezkotzat jotzen dituen irizpideak oinarri hartuta. Esate baterako: ez, ezetz *da*, beti biktimaren alde egin, indarkeria atzeman eta salatu, lagun onen ezaugarriak zehaztu.

- Lehen saioa: gelako bileran taldean gertatzen denari buruz hitz egingo dute ikasleek, batetik, gaizki sentiarazten dituzten ikaskideen jokabideei buruz, eta bestetik, ondo sentiarazten dituztenei buruz.
- Bigarren saioa: «Ausarten kluba» ipuina irakurriko dute. Jarraian, pertsonaien jokabideei buruz hausnartuko dute eta ipuinean azaltzen diren egoerak eskolan eta ikasgelan gertatzen ote diren pentsatu beharko dute.
- Hirugarren saioa: Ausarten Kluba sortzeko, ikasle bakoitzak pertsona ausart baten gorputza marraztuko du eta, burua marraztu beharrean, marrazkigilearen argazki bat itsatsiko dute.

Mural handi batean, taldekide guztien artean izenburua idatziko dute –Ausarten Kluba– eta ikasgelako zein tokitan jarriko duten erabakiko dute.

Ikasle bakoitzak paper batean ipuineko edota elkarrizketan aipatutako jokabide ausart bat idatziko du eta gero, muralean itsatsiko du.

- Laugarren saioa eta ondorengoak: asteroko bileraren gaien zerrendan galdera bat gehituko da, hots, zer moduz doa Ausarten Kluba? Gai horren txanda heltzen denean, irakasleek edota ikasleek muralean dauden jokabide ausarten berri emango diete bilerako partaideei, eta astean zehar gertatu diren gatazken inguruan gogoeta egingo dute.

Gero, ikaskideek gatazkaren aurrean nola erantzun duten aztertuko dute: ausart jokatu dute ala ez? Erantzunaren arabera, ausartak izan diren ikasleen argazkidun marrazkiak muralean utziko dira eta ausartak izan ez direnenak kendu egingo dira denboraldi batez. Dena den, Ausarten Klubetik atera baino lehen, argudioak bilduko dira eta argi utziko da zein jokabidek edo jarrerak ekarri duen denboraldi batez kluba utzi behar izatea.

Ikasle bat ostera Ausarten Klubean sar dadin, taldekideek jokabidea aldatu duela onartu behar dute.

Erabaki hori hartu ahal izateko, honako galdera hauek lagungarriak izan daitezke: zer esan nahi du ausarta izateak?, zein dira jokabide ausartak?, nola izan gaitzke ausart?, nola bereiz dezakegu ikasle ausart bat besteengandik?, zein jokabide koldar saihestuko dugu?, nola lagun diezaiokegu ikaskide bati ausarta izan dadin?, nor aukeratuko dut nire laguna izan dadin?, nola tratatzen nau maite nauen horrek?

Bilerei esker ohartzen bagara erantzunetako batek indarkeria-kasu bati aurre egin diola edota biktima bati lagundu diola, muralean gehituko dugu.

- **Oharrak**

Gomendagarria da eskolan gertatzen diren gatazkei buruz hitz egiteko espazio berriak sortzea. Esate baterako, jolastokira joan aurretik edota jangelatik gelara itzultzean, hizketarako espazio bat sor daiteke, egunez egun gai hauei buruz eztabaidatu ahal izateko:

- Zer moduz pasa duzue jolasgaraian?
- Nola konpondu duzue gatazka?
- Ikusi al duzue jokabide ausartik edo koldarrik? Zer gertatu da?

Nahi izanez gero, beste mural bat jar daiteke gelan, ipuinean indarkeria erabiltzen duen pertsonaiaren –Samuelen– jarrerak islatu ahal izateko. Bertan, jokabide koldarrak zerrendatuko dira, argi uzteko zerk eragin dezakeen Ausarten Klubetik kanporatua izatea. Era berean, ikasleren bat klubetik denbora batez kanporatua izan bada Samuelen bezala jokatu duelako, ikasle horren marrazkia mural honetan jar daiteke.

Garrantzitsua da irakasleek jokabide ausartak –indarkeria-egoeren berri ematea, biktimari laguntzea– ikusaraztea eta hitzez bultzatze, bai bileran, beste irakaste batzuekin hitz egitean, bai gurasoekin hitz egitean, adibidez, seme-alaben bila etortzen direnean. Izan ere, jokabide ausarta duena lagun ona da eta askok nahiko dute adiskide gisa alboan eduki.

- **EZ, EZETZ DA**

JARDUERA: **EZ, EZETZ DA.**

Hartzaileak	Antolakuntza	Iraupena	Tokia
14 urtetik 18 urtera artekoak	4-6 pertsona	ordubeteko bi saio	Ikasgela

- **Helburuak**

- Errespetua eta elkartasuna bultzatuko dira.
- *Ez, ezetz da* lemaaren esanahia landuko da.

- **Antolakuntza**

Jarduera hau burutzeko, ikasleak lautik sei pertsonara bitarteko taldetan banatuko dira.

- **Iraupena**

Ordubeteko bi saio.

- **Baliabideak**

- Giza-baliabideak:
 - » Gelako irakasleak jarduera zuzenduko du.
- Materialak:
 - » Jazarpen-egoera bati buruzko artikulu edo bideo bat.

- **Deskribapena**

Jarduera honetan ikasleek egiazko jazarpen-kasuak aztertuko dituzte, halako egoeren presentziaz jabetu daitezen. Kasu horietako protagonistekin identifikatzen badira, konturatuko dira pertsona horien askatasuna ez dela errespetatua izan.

- Lehen saioa: ikasleek testu bat irakurri edo bideo bat ikusiko dute. Ondoren, *Ez, ezetz da* kontzeptuaren inguruan eztabaidatuko dute. Irakaslea eztabaida moderatzeaz arduratuko da. Helburua da jazarpen-kasuak zein egoeratan gerta daitezkeen identifikatzea. Eztabaidan zehar argituko da zein jarrerak ez duten ezetza errespetatzen eta zerk zapuztu dezakeen beste batzuen askatasuna.

Halaber, jarduera honen xedea da ikasleek beren kabuz jarrera horiek gaitzestea, baina irakaslea ohartzen bada askatasuna urratzen duten jarreraren aldeko diskurtsoak eztabaidan indarra hartzen duela, esku hartu beharko du; esate baterako, honako hau entzuten badu: «Neska bat hala janzen bada, zerbait nahi duela esan nahi du.»; «Ipurdia edo hankartea ukitzea ez da hainbestearinokoa.»; «Ezetz esaten du, baina berez nahi du.». Askatasuna eta ez, ezetz da errespetatzen duen diskurtsoa gailentzea da jomuga. Oso garrantzitsua da irakasleak eztabaidan izango duen papera, diskurtso nagusiaren aurkakoak diren iritziak azalratzea lortu behar baitu. Finean, diskurtso nagusiak jazarpena justifikatzen badu, ondorio latzak izan ditzake.

- Bigarren saioa: irakasleak gela lauzpabost taldetan banatuko du eta lehen saioko eztabaidan aipatutako egoera bana jarriko die. Talde bakoitzak aurreko saioko eztabaida sakonduko du honako galdera hauei erantzunez:

- » Ba al dago balio etikorik egoera horretan?
- » Nola sentitzen dira protagonistak?
- » Nola saihestu daiteke halako egoera bat?

Gutxi gorabehera 20 minutu izango dute talde txikitan eztabaidatzeko eta galderei erantzuteko.

Gero, talde guztiak batuko dira eta egindako lana bateratuko dute. Talde bakoitzak landu duen egoera azalduko die besteei; egoerak zein ondorio izan ditzakeen zehaztuko dute, baita nola saihestu daitekeen ere.

Gutxi gorabehera 40 minutu iraungo du bigarren zatiak.

JARDUERA: NIRE GORPUTZA NIREA DA

Hartzaileak	Antolakuntza	Iraupena	Tokia
6 urtetik 10 urtera artekoak	Bilera	Bi saio	Ikasgela

- **Helburuak**

- Besteen gorputza errespetatzea;
- besteen erabakiak errespetatzea;
- Ezetz esateko estrategiak ezagutzea;
- Aukeratzeko askatasuna bultzatzea.

- **Antolakuntza**

Bileran «¡Mi cuerpo es mío!» irakurriko da eta, jarraian, elkarrizketarako abagunea izango dute ikasleek.

- **Iraupena**

40 minutuko bi saio.

- **Baliabideak**

- Giza-baliabideak:
 - » Gelako irakasleak jarduera zuzendu eta eztabaida moderatuko du.
- Materialak:
 - » Profamilia, «¡Mi cuerpo es mío!», Juventud, 2015;
 - » fotokopiak;
 - » arkatzak, koloretakoak ere; eta
 - » *Ez, ezetz da* jartzen duen kartel bat.

- **Deskribapena**

- Lehen saioa: bileran irakurriko da liburua. Jarraian, galdera hau egingo da: Clararen –protagonistaren– antzeko zerbait gertatzen al zaio ezagutzen duzun norbaiti? Halaber, honako aspektu hauei buruz hitz egingo da:
 - » norbait ukitzeko baimena eskatzea garrantzitsua da. Adibideak jarriko dituzte;

» baimenik eskatu ez den edota ezetza errespetatu ez den egoerak aipatuko dituzte, bai norberak biziutakoak, bai beste batzuegan ikusitakoak.

- Bigarren saioa: Clararen marrazki bat egitea, koloreztatzea eta esaldi bat aukeratzea proposatuko zaie. Ikasle bakoitzak gehien gustatzen zaion edota ondoen bat datorren esaldia hautatuko du. Esaldi egokia idatz dezaten, galdera hau proposatu daiteke: zer esango zenioke gustatzen ez zaizun zerbait egin nahi dizun pertsonari?

Marrazkiak gela apaintzeko eta, bide batez, egunerokotasunean mezua ez ahazteko erabil daitezke.

- **Oharrak**

Bileran errespetu falta bat egongo balitz, edo norbaiten askatasuna urratuko balitz, ikasleek gelan jarri zituzten Clararen marrazkiei eta esaldiei erreferentzia egingo zaie.

Jarduera hau gomendagarria da, batez ere, ikasleren batek kontaktzen badu norbaitek gogoz kontra ukitu egin duela eta egoera horretan ez dela gustura sentitu. Hori kontatu duen astean bertan egin daiteke jarduera hau, gertatutakoari buruz gogoeta egiteko balioko baitu.

- **ERAKARPEN-EREDUAK**

JARDUERA: MUTIL GOGORRAK EZ DIRA ERAKARGARRIAK

Hartzaileak	Antolakuntza	Iraupena	Tokia
14 urtetik 18 urtera artekoak	Talde handia	Gutxienez 90 minutuko saio bat	Ikasgela

- **Helburuak**

- Sozializatzeko prozesuak landuko dira, erakarpen-ereduak nola sortzen diren argitzeko asmoz.
- Erakarpen-ereduak identifikatuko dira.
- Maskulinitatearen eredu berrien ezaugarriak ezagutaraziko dira.
- Harreman afektiboen eta sexualen ereduak landuko dira, batetik, tradizionala, eta bestetik, alternatiboa.

Jarduera honen edukiak sakondu eta errazago garatu ahal izateko, gomendagarria da jarduera zuzentzen duen irakasleak aurretik bi artikulua hauek irakurtzea:

Flecha, R. Puigvert, L., & Ríos, O. (2013). The New Alternative Masculinities and the overcoming of gender violence. RIMCIS: Revista Internacional y Multidisciplinar en Ciencias Sociales, 2(1), 88-113.

Padrós, M. (2012). Modelos de Atractivo Masculinos en la Adolescencia. Masculinidades y cambio social, 1(2), 165-183.

- **Antolakuntza**

Talde handia

- **Iraupena**

90 minutuko hiru saio.

- **Baliabideak**

- Giza-baliabideak:

» Gelako irakasleak jarduera zuzenduko du.

- Materialak:

- » Arbela, argazkiak itsasteko zinta itsasgarri bat –edo tankerako zerbait–, eta tiza edo errotulagailu bat. Ikasleek modan dauden pertsonen argazkiak ekarriko dituzte. Beharrezkoa izanez gero, pertsona heldu arduradunak ere argazki bat edo beste ekar dezake.

- **Deskribapena**

- Lehen saioa: ikasleei film gustukoenero protagonistaren edota asko gustatzen zaien pertsona ezagun baten argazkiak ekartzeko eskatuko zaie. Argazki gehienek indarkeriazko erakarpenereduak islatuko balituzte, irakasleak beste maskulinitate baten erreferenteak ekar ditzake. Kasu horretan, garrantzi handia dauka argazkiko pertsona ezaguna izateak; balio etikoak –adibidez, errespetua, berdintasuna– izateaz gain, ikasleentzat erakargarria izan beharko du. Gandhi, adibidez, balio etikoak izanagatik ere, ez da erakargarria gaur egungo ikasleentzat. Hortaz, ez da pertsonarik egokiena jarduera honetarako.

Jarduerarekin hasi aurretik, irakasleak hirutan banatuko du arbela: zati batean, ikasleek ekarritako argazkiak jarriko ditu eta, beharrezkoa izanez gero, irakasleak berak ekarri dituenak.

Esan bezala, garrantzitsua da argazkiek maskulinitatearen eredu tradizionala eta alternatiboa irudikatzea.

Honako galdera hauek egingo zaizkie ikasleei:

- » Zein ezaugarri dituzte argazkietako pertsonak?
- » Nola tratatzen dituzte bikotekideak, eta lagunak?
- » Errespetuz jokatzeko ingurukoak engainatu eta bortxatu gabe?
- » Noizean behin bada ere, indarkeria erabiltzen al dute?

Taldea aho batez saiatuko da argazkietako pertsonak deskribatu eta galderei erantzun ahal izateko izenlagunak bilatzen. Arbeleko beste zati batean idatziko dituzte izenlagun edo ezaugarri horiek, esate baterako: harroputz, maltzur, posesibo, lotsagabe, berekoi, bakarti, gogor, arauak hausten ditu, bere zortzikoan dabil, samur, adeitsu, maitekor, eta abar.

Zerrenda bukatutzat jotzen dutenean, arbeleko hirugarren zatia bi zutabetan banatuko da: batetik, «indarkeria» eta bestetik «askatasuna» idatziko dute goiburuan. Ikasleek zerrendako izenondoak zutabe batean edo bestean sailkatuko dituzte, ezaugarri horiek sortzen duten harreman –indarkeriazko edo aske– motaren arabera.

Helburua da, pertsona famatuena ezaugarriez gain, ikasleek ezagutzen dituzten kasuei buruz eztabaidatzen hastea. Halaber, filmetan edota serieetan agertzen diren mitoak eta gezurrak gainditzen ikasteko balioko du jarduera honek. Adibidez, argazkiko pertsona bat izenlagun kontrajarriekin deskribatu badute, hots, «maitekorra izan arren, indarkeria fisikoa erabili du», hori bizitza errealean gerta ote daitekeen eztabaidatuko dute, eta halako pertsona batekin harreman bat izateak zein ondorio dakartzan. Pertsona batek beste bat indarkeriaz tratatu badu, ziur egon al gaitzke gurekin indarkeriarik ez duela erabiliko? Maiz pentsatzen dugu pertsona berak gurekin «beste era batera» jokatu duela; mito hori ezbaian jarriko dugu.

- Bigarren saioa: hasi baino lehen, argazkiak eta sailkapena –«indarkeria» eta «askatasuna» zutabeak– jarriko dituzte arbelean. Informazio hori kontuan izanik, honako hau eztabaidatuko dute ikasleek: posible al da laguntasuna eta pasioa, sexu-desira eta maitasuna, zoramena eta samurtasuna pertsona berarekin sentitzea?

Gerta daiteke ikasleetako batzuk aitortzea «askatasun» zutabeko ezaugarriak dituzten pertsonak ezagutzen dituztela. Agian halako zerbait esango dute: «adiskideak dira, besterik ez». Halaber, gerta daiteke ikasleek aitortzea filmetan eta serieetan balio etiko horiek ez direla erakargarri gisa islatzen. Hori horrela izanda, jardueraren helburuak harreman tradizionalen honako ezaugarri hauek identifikatzean eta nabarmentzean datza:

- moral bikoitza;
- etikaren eta desiraren aurkakotasuna;
- pertsona gustukoaren eta komenigarriaren arteko kontraesana;
- maskulinitate tradizional dominatzaile eta zapalduaren arteko aldea;

Jarduera hau behar bezala dinamizatu ahal izateko, irakasleei honako testu hauek irakurtzea gomendatzen zaie:

Gómez, J. (2004). *El amor en la sociedad del riesgo: una tentativa educativa. Hirugarren kapitulua*. Barcelona: El Roure

Flecha, R. Puigvert, L., & Rios, O. (2013). *The New Alternative Masculinities and the overcoming of gender violence. RIMCIS: Revista Internacional y Multidisciplinar en Ciencias Sociales*, 2(1), 88-113.

- Hirugarren saioa: hasi baino lehen, argazkiak eta sailkapena –«indarkeria» eta «askatasuna» izenburudun zutabeak– jarriko dituzte arbelean. Saio honetan indarkeriaren zutabeko ezaugarriak dituzten pertsonaiei erreparatuko zaie. Eztabaidari ekiteko galdera hau proposatuko da: nolakoak dira maskulinitate tradizional dominatzailearen arabera jokutzen duten mutilak?

Eztabaidari ekiteko film, serie edota bideo bateko pasarte bat erabil daiteke, non, maskulinitate hori islatzen den. Beste aukera bat da argazkietako protagonistek maskulinitate eredu horren arabera jokatu duten eszenei buruz hitz egitea. Analiaren ardatza hau izango da:

- Zein ezaugarri bihurtzen dituzte pertsona horiek hain erakargarri?
- Zein estrategia darabilte ligatu ahal izateko?

Ikasleak gehiago murgilduko dira eztabaidan eta hausnarketan: zergatik dira estrategia horiek hain arrakastatsuak?, nola jokutzen dute neskek eta mutilek funtziona dezan? Hainbat egoerek galdera horiek erantzuteko balio dezakete, esate baterako, limurtze-estragiek arrakasta izan dezaten, liderra izan behar da eta gainerakoak, aldiz, otzanak; zein da maskulinitate-eredu horren arabera jokutzen duten mutilen helburua? Besteak barregarri uztea izan daiteke edota neska batekin sexu-harremanak izatea eta gero kritikatzeta, iraintzea.

Saioa bukatu aurretik, komeni da ikasleek strategiak proposatzea, maskulinitate-eredu hori erakargarria izan ez dadin; adibidez, kasurik ez egitea, irriarri uztea eta beste jokabide batzuk daudela ikusaraztea, hots, maskulinitate-eredu berriak. Argudio hori indartzeko, filmetako pertsonaiak aipatuko dira adibide gisa. Tratu ona ematea eta erakargarri izatea posible dela egiaztatu nahi da. Honako hauen tankerako galderak proposatu daitezke:

- » Ez al duzue ezagutzen neskak ondo tratatzen dituzten mutil bat baino gehiago?
- » Zer deritzozue gainerakoak ondo zaintzen dituzten mutilen inguruan?
- » Zer transmititzen diegu, ziurgabetasuna ala segurtasuna?

» Zer gertatuko litzateke, mutil onei txiki-txikitatik adorea emango bagenie?

- **Oharrak**

Jarduera hau egiteko film bat azertu daiteke, baita film edo serie bateko pasarte jakin bat ere. Komenigarria litzateke ikasleek landuko den film edota seriea ezagutzea. Horretaz gain, pasarteak argi eta garbi erakutsi beharko ditu maskulinitate-eredu tradizionalaren ezaugarriak, hots, irainak, destaina, mendean jartzea eta indarkeria. Analisiaren xedea indarkeria eta erakarpena elkarrengandik bereiztea denez, ikasleek eztabaidan zehar indarkeria darabilten jokabideak goraiatu beharrean, gaitzetsi egin beharko dituzte.

Jarraian, «Tres metros sobre el cielo» filmeko pasarte batzuk erabiliko dira, Hache pertsonaiak neskak nola tratatzen dituen aztertzeko asmoz. Adibide hori lagungarria izan daiteke ikusarazteko zeintzuk diren maskulinitatearen eredu tradizional dominatzailearen ezaugarriak, adibidez, indarkeriaren erabilera. Halaber, film horretako elkarrizketek zer pentsa eman dezakete filmek zenbaitetan erakusten duten harremanen irudi irrealari buruz. Akaso modako beste film edota serie batzuk otuko zaizkie ikasleei «Tres metros sobre el cielo» adibidea landu ostean.

- **Trama**

Bi pertsonaia hauen arteko harremanean kokatzen da filmaren trama: Hugo Olivera (Hache) eta Bárbara Alcázar (Babi). Hache motozalea da, gaztea eta errebeldea; jenio handia dauka, disziplina gutxi, lehiakorra da, zirikatzailea, eta hori gutxi balitz, iragan iluna du. Babi, aldiz, asko babesten dute gurasoek; etxean nahiko diru dute, neska gazteak jarrera irmoa du, malezia gutxi eta apeta asko.

Filmaren hasieran, Hache epaiketa batetik atera da amaren mutil-lagunari jo diolako.

Aurrerago ere, indarkeria fisikoa erabiliko du Hachek filmeko zenbait pasartetan eta epaiketa berri baten esperoan dago. Bertan, Babi testigu izango da.

Hona hemen filmeko pasarte bateko elkarrizketa euskaraz³. Hachek Babiri etxera lagundu dio eta sartzera doanean, Hachek gerritik heldu eta zera leporatu dio:

— Salatu egingo al nauzu?

— Bai.

— Benetan?, seguru al zaude? zin egingo didazu? —esan dio lepoan, masailean musu ematen dion bitartean. Babik begiak itxi ditu ahoan musu eman diezaion.

— Ai ene, baby, baby! Zekena, astakirtena, basapiztia, bortitza izan arren, nik musu ematea nahi duzu. —Behatz erakuslearekin ezezko keinua egin dio.— Inkoherente hutsa zara.

— Eta zu kabroi hutsa.

— Zergatik zabaldu duzu ahoa behin eta berriro arraintxo baten antzera? Musukatzea nahi duzu? —Babik belarriondoko bat eman dio Hacheri.— Itzulidazu jaka oraintxe bertan, gaurko da. Arraintxo, ez al didazu agur esateko musutxorik emango?

— Zoaz popatik hartzera!

Babi etxera sartu da eta logelan lagun bat eta ahizpa zain dauzka. Pozik daude gaua Hacherekin pasa duelako. Ahizpak zera galdetu dio:

— Hache izan da, ezta? Hachek puskatu dizu arropa. —Barre egin du Babik.

Hurrengo eszenan Hache Mara izeneko neska baten gelan sartu da, kamiseta kentzen duen bitartean. Berandu heltzeagatik desenkusatu da:

— Sentitzen dut, polizia segika nuen.

— Gezurra, arratoitxo pinpirin horrekin ikusi zaitut. Hachek Mararen gorputza musukatzeari ekin dio.

[Analisia: erakarpen-ereduak elkarrekintzen bidez sortzen dira, hots, elkarrizketen bidez. Goiko pasartean, adibidez, Babiren lagunak eta ahizpak Hacheri buruz grinaz hitz egiteak desira sor dezake Babirengan.]

³ Itzulpena itzultzailearena da.

Beste gau batean, dantzan ari den jendetzari so egiten dio Hachek diskotekako goiko korridore batetik. Mara hurreratu zaio sua eskatzeko eta errezeloz zera dio:

— Zer gertatzen zaizu?

— Ezer ez, proiektu berriak —erantzun dio axolagabetasunez.

— Eskerrak, izan ere, jainkojale horrek hankartea irekitzerako... —erantzun dio haserre eta maltzur irri eginez.

— Deituko dizut, ados? —bota dio Hachek, jakinik esandakoa ez duela beteko.

[Analisia: maskulinitatearen eredu tradizional dominatzailearen arabera jokatzeko dutenek tratatu txarra ematen diete besteei, bai indarkeria fisikoaren bidez, bai iseken bidez, baita besteen nahia zapalduz ere. Hori gutxi balitz, neskak mespretxatzen dituzte. Horixe da, hain zuzen, Marari gertatu zaiona. Emakumeenganako erdeinu eta gorroto hori ez da soilik Mararen kasua, edozein neskarena baizik. Gauza bera gertatzen da Hachek Babiri musu-eske ibiltzea leporatzen dionean, makurrarazi egiten du.]

— Zerbait kontatu behar dizut. Urduri nago —esan dio Babik Hacheri.

— Zergatik?

— Orain arte ez dudalako sekula sexu-harremanik eduki.

— Ezta nik ere —erantzun dio Hachek barre artean.

— Gezurti halakoa...

— Zurekin ez daukat presarik, Babi.

[Analisia: maskulinitatearen eredu tradizional dominatzailearen arabera jokatzeko duen norbaitek ez gaitu engainatuko; beste neska batzuk erabili baditu, gurekin gauza bera egingo du. Hortaz, filmek ez gaitzatela engainatu. Hachek iruzur egin dio Babiri, ez baitago arduratuta. Badakigu Hachek —eta Hacheren jokabidea dutenek— Mara bezala tratatuko dutela emakume oro. «Tres metros sobre el cielo» eta beste hainbat film grinaz betetako maitasun istorio gisa saldu dizkigute; baina badakigu maitasuna eta grina beste jokabide bat duten pertsonekin soilik sentituko ditugula.]



JARDUERA: LAGUN ON BAT

Hartzaileak	Antolakuntza	Iraupena	Tokia
6 urtetik 10 urtera artekoak	Talde handia	Ordubeteko bi saio	Ikasgela

- **Helburuak**

Laguntasun onaren eta txarraren ezaugarriak aztertuko dira.

- **Antolakuntza**

Bileran «¡Mi cuerpo es mío!» liburua irakurriko da eta, jarraian, elkarrizketarako abagunea izango dute ikasleek.

- **Iraupena**

Ordubeteko bi saio beharko dira jarduera burutzeko.

- **Baliabideak**

- Giza-baliabideak:

- » Gelako irakasleak jarduera zuzenduko du.

- Materialak:

- » Papera, errotulagailuak eta koloretako arkatzak.

- **Deskribapena**

- Lehen saioa: irakasleak argi eta garbi azalduko du zer egingo duten jardueran zehar. Hasteko, lagun on baten ezaugarriak betetzen dituen pertsona bat marraztuko dute ikasleek, sexua edozein izanda ere. Marrazkiaren azpialdean bi zutabe egingo dituzte honako goiburu hauekin: «lagun on baten izenlagunak» eta «lagun txar baten izenlagunak».

Marrazkia eta zerrenda bukatzen dutenean, nahi duenak lagun on batek eta lagun txar batek zein ezaugarri dituen azaldu diezaieke gainerako ikaskideei.

Ikasle boluntarioen ekarpenak –marrazkia eta izenlagunen aurkezpena– entzun ostean, ikasle guztien marrazkiak gelako paretan ipiniko dira.

- Bigarren saioa: ikasle bakoitzak aurreko saioan egin zuen marrazkia hartuko du, lagun on bat zer den gogorarazteko asmoz. Saio honetan zehar irakasleak hainbat egoerei buruzko galderak egingo dizkie ikasleei. Zer egingo luke lagun

on batek «x» egoeraren aurrean? Akaso ikasleek jada ezagutzen dituzte egoeretako batzuk. Honako hauen tankerako galderak egin diezazkieke irakasleak:

- » Lagun on batek ikusten badu ikaskide batek iseka egiten dizula, zer egingo du?
 - » Lagun on bat konturatzen bada talde batek iseka egiten dizula, zer egingo du?
 - » Zer egiten du lagun on batek triste zaudenean?
 - » Lagun on batek zuri buruzko gezur bat entzun badu, zer egingo du?
 - » Lagun on bat ohartzen bada ez dakizula ariketa bat nola egin, zer egingo du?
- Jarduera honen xedea da ikasle guztiek berdintasunean oinarritutako elkarriketan parte hartzea eta ikasleei benetako lagun batek nola jokatzeko duen ikusaraztea.

- **Oharrak**

Helburua ez da ezagutzen dituzten pertsonak sailkatzea, lagun on baten ezaugarriak zeintzuk diren argitzea baizik.

8. METODOLOGIA ETA ANTOLAKETA

Hau lortzeko, ikastetxean eta geletan erabiltzen dugun antolakuntzak eta martxan ditugun praktikak berdintasunean parte hartzea bideratzen dute. Beraz, aurrerantzean, hezkidetzak eta elkarbizitza ikuspuntutik burutzen ditugun ekintza arrakastatsu hauek indartu eta hobetu nahi ditugu: Tertuliak, talde elkarreragileak, komisio mistoak, komunitatearen formazioa.

A.-TERTULIA

Aurretik aipatutako tertuliez gain (eredu dialogikoa eta gatazkeen prebentzioaren ingurukoak) tertulia literarioa dialogikoak eta curricularrak oinarri sendoa izango dira.

- Literatur tertulia dialogikoek argi utzi dute oso baliagarriak direla bortizkeria eta sexismoaren aurrean espiritu kritikoa garatzeko, bortizkeriari erakargarritasuna kentzeko, jarrera ausartak eta tratu

onak bultzatzeko baita solidaritatea eta laguntasuna lortzeko ere.

Testu klasiko unibertsalean oinarrituta pertsona desberdinak berdintasunean sortzen duten elkarrizketak oso lagungarriak dira. Horregatik prozesu guztian tertuliak erabiliko ditugu.

- Curricular tertulietan haur hezkuntzatik hasita landuko ditugun testuen artean emakume zientifikoek egin dituzten ekarpen garrantzitsuak eta emakume horiek ezagutzeko testuak txertatuko ditugu.

B.-TALDE ELKARRERAGILEAK

Talde hauetan neska eta mutilek berdintasunean lan egiten dute ikasketa prozesuan elkar lagunduz. Errespetuz jokatzeko inor baztertu gabe, lanean elkar ondo tratatzea bultzatzen dugu, eta jarrera menperatzaileak ez dira onartzen.

C:- FAMILIEN FORMAZIOA ETA PARTE HARTZEA

Familien formazioa eta bereziki parte hartzea garrantzitsua izaten da emakumeak eta beste hainbat senide ahalduntzeko (normalean gehienak emakumeak izaten dira) .Arlo instrumentaletan jasotzen duten formazioak euren bizitzaren garapen pertsonalean eta profesionalean eragiten die, baita ere komunitatean erabakiak hartzeko orduan.. Ikasketa honek benetakoa izan dadin ikasketa dialogikoaren printzipioetan oinarrituta egon behar du, batez ere berdintasunean oinarritzen den elkarrizketa ezinbestekoa da, hau da, denen ahotsak entzutea eta ekarpenak baloratzea argudioak kontuan hartuta eta ez nork esan duen begiratuta.

Hala ere ezin dira ahaztu beste printzipioak: eraldaketa, goi mailako espektatibak, adimen kulturala, instrumentalen ikasketa, zentzua sortzea eta desberdintasunen berdintasuna.

9. FORMAZIOA ETA MATERIALAK

Eskola komunitate osoa, irakasleak, familiak, ikasleak, irakasle ez diren langileria,...gai hauen gainean prestatu egiten dira. Formazioa era desberdinetan izan daiteke.

- **Gai hauen inguruko hitzaldiak, ikastaroak, eta elkarrizketak.** Hitzaldi batzuk grabaturik daude beraz erabili daitezke bai osorik edo interesgarria den zatia hartuta.

- Marcos Castro: Atracción, deseo y relaciones igualitarias, ¿por qué me atrae si no me conviene
 - Primera parte (53´) Lehen atala
 - Segunda parte (50´) Bigarren atala
- Patricia Melgar y Marcos Castro: Rompamos el silencio, ¿contamos contigo?
 - Primera parte (36´) Lehen atala
 - Segunda parte (50´) Bigarren atala
 - Tercera parte (20´) Hirugarren atala

- **Tertulia pedagogikoak**

Gai hauen gainean oinarri zientifikoak argitaratzen dituzten liburu edo artikuluak partekatzen ditugu. Tertuliak irakasleekin, gurasoekin, ikasleekin boluntarioekin antolatzen ditugu batzuetan denok batera eta beste batzuetan bananduta. Oro har irakasleenak eta familienak irekita daude bai gurasoentzat eta baita ikasle nagusientzat ere. Ikasleenak bereziki haiengana bideratuta egoten dira eta aukera ematen dute boluntario gazteengana irekitzeko, unibertsitateko ikasleengana adibidez. Tertulia hauetarako oinarrizko liburu batzuk:

- Gómez, J. (2004). El amor en la sociedad del riesgo: una tentativa educativa. Barcelona: El Roure.
- Mayes, L.C., & Cohen, D. J. (2002). Guía para entender a tu hijo. Centro Yale de estudios infantiles. Madrid: Alianza Editorial. Cap. 23 y 24

- Carbonell, S., Cantero, N., Navarro, M., & Melgar, P. (2016). Modelo Comunitario de Convivencia en Educación Primaria. *Informació Psicológica*, 111, 91-102.
- Sancho, E., & Pulido, C. (2016). El club de valientes de la comunidad de aprendizaje CPI Sansomendi PI. *Revista Padres y Maestros*, 367, 38-41.
- Duque, elena y otros (: Idealove€&NAM. Socialización preventiva de la violencia de género.
- Schubert, T., Valls-Carol, R. (2015). Análisis de contenido de las interacciones online de las adolescentes, ¿Lenguaje del deseo o de la ética?. *Communication & Social Change*, 3(1), 77-99. doi: 10.17583/csc.2015.1788
- Oliver, E., & Santos, T. (2014). Socialización preventiva ante el Ciberacoso. *Communication & Social Change*. doi: 10.17583/csc.2014.1309
- Oliver, E., & Valls, R. (2004). *Violencia de género. Investigaciones sobre quiénes, por qué y cómo superarla*. Barcelona: El Roure.
- Video-forum
 - video de Amanda Todd. Chica de 15 años víctima de ciberbullying y sextorsión. En el siguiente enlace puede encontrarse la información referente al caso, así como un análisis realizado por la asociación Pantallas Amigas:

<http://www.ciberbullying.com/cyberbullying/2012/10/17/el-video-con-el-que-amanda-todd-luchaba-contr-a-el-ciberbullying-subtitulado-al-espanol-por-pantallasamigas/>